

**DONOSTIAKO UDALAREN GIZA GARAPEN
IRAUNKORRERAKO LANKIDETZA ETA
HEZKUNTZAKO 2012-2015 ALDIRAKO PLANAREN
EBALUAZIO TXOSTENA**

Lankidetzako Kontseiluko Aurkezpena

Toxtenaren egileak: Silvia Piris Lekuona eta Monika Plazaola Sojo

2016/06/14

LABURBILDUZ: EBALUAZIO PROZESU HONETATIK ATERATAKO IDEIA, BALORAZIO ETA GOMENDIO NAGUSIAK.

Dokumentu honetan, ebaluazio prozesutik atera diren ondorio eta gomendio nagusiak bildu ditugu. Nahi duenak eskuragarri du dokumentu osoa, bai eta ekainaren 14an Donostiako Lankidetzako Udal Kontseiluari aurkezteko erabiliko den powerpointa ere.

Eskerrak eman nahi dizkiegu prozesu honetan parte hartu duten pertsona eta erakundeei: Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Gipuzkoako ordezkariak, Euskal Fondoak, inkestaren eta kontraste saioaren bidez parte hartu zuten Donostiako GGKEei eta Lankidetzako Bulegoko lantaldeari eta zerbitzaburuari.

Espero dugu ondorio hauek aurrera egiteko baliagarri gertatzea.

Ebaluazio prozesutik ateratako ondorio nagusiak

Ebaluazio honek laburtuta jaso ditu Planaren indarraldiaren eta garapenaren ezaugarri nagusiak. Hausnarketak antolatzeke, agiria hiru bloke handitan banatu da, eta horri azken puntu hau gehitu zaio; hau ere hala ordenatu da, eta zenbait iradokizun biltzen ditu, modu orokorragoan.

Erabilitako **tresnei** dagokienez, ebaluazio prozesuak honako hauek barne hartu ditu: agirien azterketa; informazio bilketa, Donostiako GGKEetara bidalitako online galdera sorta baten bidez; bi elkarrizketa sakon Euskal Fondoari eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Gipuzkoako Ordezkaritzari; eta bi eztabaida talde (bat Lankidetzako Atalarekin eta bestea GGKEekin).

Alderdi teorikoari dagokionez

Esparru teorikoa eta helburu orokorrak eragingarri egiteko, horiek biltzen dituen **helburuen**, emaitzen, ekintzen eta adierazleen **matrize** bat ezarri da. Matrizearen betetze maila, oro har begiratuta, egokia izan da; alabaina, badirudi kasu batzuetan proposatutako adierazleak handinahiegiak izan direla eta, horrez gain, zailtasun esplizitu batzuk egon dira horiek lortzeko, erabakia ez denean zuzenean taldearena izan eta/edo beste eragile batzuk ere tartean sartu direnean. Hala, esan genezake politiken koherentziarekin lotura zuzenagoa zuten Planeko jarduketak garatzeko zailagoak izan direla. Ildo horretan, zenbait adierazle berriz formulatu behar izan dira Planaren indarraldian, eta beste batzuek zailtasunak sorrarazi dituzte Urteko Plan Operatiboaren jarraipena neurtzeko.

Egiaztatze eta ebaluazio prozesuko elementu azpimarragarrienei dagokienez, esan dezakegu asmo handiko **Plana** dela, lehenengo plana hobetzen eta sakontzen duela, adostasunez egindakoa dela eta koherentziaz gauzatutako esparru teoriko bat duela. Gainera, ikuspegi hau interesgarria eta berritzailea da; azken finean, esan dezakegu oso ondo baloratuta dagoela estrategikotzat hartzen diren eragileen artean. Are gehiago, estatu mailan, udal lankidetzaren erreferentzia da eragile batzuentzat.

Interes arloen eta zehar lerroen definizioaren harira, eta zehatzago jarduketa sektoreen eta herrialdeen lehenespenei ezaren harira, nahiko argi azaldu da erabaki hori hartzeko arrazoia, eta horrekin bat datoz ebaluazioan parte hartu duten eragile desberdinak. Dena den, nolabaiteko desoreka ikus daiteke interes arloen eta zehar lehorren zehaztapen mailan eta horietako batzuei diru laguntzen ildoak barematzeko irizpideetan emandako puntuazioan. Era berean, ikusi da interes arloen, sektoreen eta zehar lerroen arteko aldea argiagoa izan dela plano teorikoan benetako aplikazioan baino. Esaterako, adierazi da arloek zehar

lerro gisa funtzionatu dutela, ia guztiak barne hartu behar izan dituztelako proiektuak onartuak izateko. Hori bereziki konplexua izan da erakunde batzuentzat.

Bestalde, aukeratutako arlo motak (esaterako, elikadura burujabetza) edo zehar lerroak (esaterako, indarkeria aktiborik eza) elementu berritzaile eta interesgarritzat hartzen dira lankidetzaren esparruan, eta, beraz, udal lankidetzari nortasuna ematen diotela uste da. Erakunde parte-hartzaileek interesgarritzat jotzen dute ikuspegi teoriko horri jarraipena ematea, lerroen eta arloen arteko egungo banaketaren egokitasuna baloratzea eta horietako batzuen sorreran sakontzen jarraitzea.

Eragile estrategikoei, espazioei eta harremanetarako moduei dagokienez

Donostiako gizarte mugimenduei eta elkarten mugimenduei laguntzeari dagokionez, oro har, aintzat hartzen da izapideak errazteko eta burokrazia murrizteko eginiko ahalegina, baina onartzen dute balitekeela erakunde txikiak hori nahikoa ez izatea. Esaterako, Udalaren diru laguntzen ildoaren espezializazio maila altua da eta baldintzak zorrotzak dira. Kontu hau, beti bezala, berrikusten ari direla adierazi dute, *burokratizazioa* ahal den heinean murrizteko eta estrategikotzat hartzen diren beste eragile batzuekiko harremanak errazteko. Ildo horretan, gizarte mugimenduetara, plataformetara eta halakoetara gerturatzeko proposamena garrantzitsutzat jotzen dute bai Udaleko langileek bai GGKEetakoek, nahiz eta moduei eta denborei dagozkien erronkak badauden oraindik. Alde batetik, nazioarteko gizarte mugimenduei (hala nola, MMM eta LVC) laguntza emateak zailtasunak ekarri ditu. Bestetik, beste mugimendu batzuekin ezarritako harremanak, esaterako, Udalak antolatutako ekimen zuzenen bitartez, zehatzak izan dira kasu batzuetan.

Beste eragile batzuekiko sareko lana sustatzearen harira, positibotzat hartzen dira horietako batzuekin (Saretuz, esaterako) ezarritako harremanak; alabaina, adierazi dute beharrezkoa dela hiriko beste erreferentzia batzuekin dituzten harremanetan aurrera egiten jarraitzea, esaterako, Emakumeen Etxearekin.

Euskadiko GGKEen Koordinakundea – Gipuzkoako Ordezkaritza eragile estrategikotzat hartzen du Plan honek, Donostiako elkarten mugimenduaren zati garrantzitsu batekin elkarriketatzeko aukera pribilegiatua eskaintzen baitu. Ildo horretan, Plana indarrean egon den bitartean bere horretan eutsi zaie eta laguntza eman zaie komunikazio espazioei.

Euskal Fondoa da estrategikotzat jotako beste eragileetako bat; horrekiko parte-hartze aktiboa lortu nahi izan da, bilkuretarako bertaratzeak gaitutako zituena, eta harremana bi aldeek oso positibotzat jotzen badute ere, beti daude hobetu daitezkeen elementuak. Harreman honetan, nabarmentzekoak dira Memoriaren Oasia proiektuaren harira eginiko jarduketak. Herri sahararraren eskubideen inguruan eginiko lan horrek aintzatespen eta eragin handia izan du, bai bertan bai nazioartean. Sakondu beharreko lerro bat da Euskal Fondoaren eta Udaleko zenbait sailen arteko harremana, interes arlo batzuetarako laguntza teknikoak sendotze aldera. Berdintasun Sailarekin izandako esperientzia oso positiboa izan da, eta indartu beharreko ikasketak eta elementuak identifikatu dira.

Lankidetzako Udal Kontseiluari dagokionez, esan daiteke aktiboki lan egin duela 4 urteotan, bere helburuak bete ahal izateko. Bereziki nabarmentzekoa da egindako hausnarketa prozesua; horrek araudi berri bat sortzea ekarri du, praktikoagoa eta eraginkorragoa. Lankidetzaren Atalarentzat espazio garrantzitsu eta erreferentziazkoa da lankidetzaren politika egiaztatzeko; alabaina, hausnarketa prozesuaren balorazioa ez da horren positiboa izan, eskakizun formalagoen ondorioz egin baita, eta ez da bereziki erabilgarria izan Kontseiluarentzat. Alderantziz, Kontseiluaren funtzionamendu dinamika geldotu egin du aldi horretan.

Beste eragile estrategiko batzuek, hala nola, Koordinakundeak eta GGKEek, balioa eman diote, halaber, espazioari, eta uste dute aurrera jarraitu behar dela nagusiki informatzailea izateari utz diezaion eta erabakitzeke ahalmen handiagoa izan dezan. Esanguratsua da eragile hauek 2015eko bigarren seihilekotik aurrerako Kontseiluaren ibilbidea baloratzean agertzen duten kezka; hain zuzen ere, adierazi dute espazio honek azken urteetan izan duen nagusitasuna galtzeko arriskua dagoela. Nolabait esateko, lehen zuen funtzionamendu eta partaidetza dinamika galdu duela uste dute, baita gertutasun politikoa ere. Beraz, badirudi funtsezkoa dela espazio honen garrantzia azpimarratzen jarraitzea eta horren berrikuspen kritikoan aurrera egiten jarraitzea, antolatzeke eta funtzionatzeko dituen moduak hobetze aldera.

Politiken koherentziari eta Udalaren lanari dagokienez, elementu nagusi eta nahiko berritzaileak dira Plan honetan, baina zailtasunak ere badaukazate, lehen ere aipatu dugun moduan. Alde batetik, banku etikoaren eta kontsumo kontziente eta arduratsuen gaiak landu dira beste sail batzuekin. Bestalde, zenbait jarduera antolatu dituzte elkarren artean, eta Udalak hainbat adierazpen hartu ditu bere gain; esaterako, herri sahararrari babesa emateko edo zenbait espaziotan posizionatzeko. Alabaina, badirudi beharrezkoa dela espazio horiei nolabaiteko formalitatea eta jarraipena ematea; izan ere, joera da gaiak sektoreka lantzea, eta lan handia dago egiteke administrazioan politiken koherentziaz hitz egitea ahalbidetuko diguten dinamikak sartu ahal izateko. Beste alde batetik, lankidetzaren politika eta Udaleko baliabideak indartzeari dagokionez, aurrera egin da plangintza, kudeaketa eta jarraipena hobetzeko; alabaina, adierazi dute beharrezkoa dela ebaluazioaren kultura sendotzea. Horrez gain, beste erronka bat ere identifikatu dute: teknikarien etengabeko prestakuntza eta babestutako ekimenetako batzuen zuzeneko ezagutza hobetzea, kasuan kasuko segimendu txostenetatik haratago.

GGKEak bat datoz adieraztean Udala nolabaiteko erreferentzia dela politiken koherentziarako, eta erakundearen garrantzia azpimarratzen dute, baina, aldi berean, adierazi dute beharrezkoa dela konpromiso sendo bat ezartzea ildo horretan. Koordinakundearen iritziz, alderdi teorikotik harago ez joateko arriskua dago, eta adierazi du beharrezkoa dela aurrerapenak neurtzea ahalbidetuko duten adierazleak zehaztea.

Udalak zuzenean antolatutako garapenerako hezkuntzarako ekimenei dagokienez, uste dute hori dela udal lankidetzaren eta Plan honen nortasun ikurretako bat, bereziki, normalean GGKEek lantzen ez dituzten gaurkotasuneko gaiak aukeratu direlako eta beste sail batzuekiko baterako lana ahalbidetu delako. Ekimen horiek antolatzeak (batez ere, hitzaldiak eta hausnarketarako nahiz prestakuntzarako espazioak) ahalbidetu du Planak lankidetzaren arloan tradizionalak ez diren beste eragile eta agenda batzuetara gerturatzeko zuen asmoa gauzatzea, eta Donostiako hiritarrek egungo testuinguruari kritikoki begiratzeko espazioak sendotzea. Balorazioa positiboa izan da, bai Udalaren bai GGKEen aldetik. Alabaina, hobetu beharreko elementu gisa ezarri da balorazio hau modu sistematikoagoan jasotzeko eta eragile nahiz ekimen horiekiko harremanarekin jarraitzeko beharra.

Esparru honetan, bereziki aipatu behar da **Donostia Entremundos – San Sebastián Munduen Artean** programa; izan ere, tresna horrek sendotu egiten du Donostiako elkarten eta GGKEen mugimenduak egindako lana, eta azken horiek ere positiboki baloratzen dute.

Beharrezkotzat jo da sakonago ebaluatzea jarduketaren eragina eta ikustea, esaterako, nola hel gaitetzkeen hiriko auzo gehiagotara eta biztanleria kolektibo jakin batzuetara, edo nola egokitu Donostia Entremundos – San Sebastián Munduen Artean tresna hiriko errealitatera eta GGKEen beharretara.

Azkenik, Planaren arabera, **Gipuzkoako Foru Aldundia** da Udaletik gertuen dagoen erakundea, eta, gainera, ikuspegia eta helburuak partekatzen dituzte. Dena den, zailtasunak egon dira erabat koordinatzeko, eta,

beraz, baterako lana bilkura jakin batzuetara eta ekintza zehatz batzuetara bakarrik mugatu da; hala nola, Emakumeen Mundu Martxa babestu dute, bi erakundeentzat estrategikoa baita nazioarteko gizarte mugimendu hori. GGKEen iritziz, koordinazio hori positiboa da, baina ez da behartu behar; alegia, koordinatuta lan egin behar dute, baldin eta sintonia badago bi administrazioek proposatutako lankidetzaren eredu eta helburuen artean. Uste dute kasu honetan koordinazioak indarra eman diezaiekeela, baina zalantzan jartzen dute koordinazioak *per se* onurak ekartzea, administrazio bakoitzaren zehaztasunak eta nortasuna errespetatzen ez badira.

Jarduteko moduei, tresnei eta baliabideei dagokienez

Oro har, badirudi eragile guztiek uste dutela diru laguntzen deialdiaren **oinarriarekiko** asebetetze maila altua dela. Oinarri horiei ikuspegi teorikoa emateari dagokionez, ikusi da zehar lerroek eta interes bereziko arloek esparru teorikoan duten garrantzia balorazio irizpideetan islatzen dela, pisu handia hartuz. Beste alde batetik, interes arloa eta zehar lerroa bereizteko zailtasunak ikusi dira, horien bereizketa nahiko lausoa baita tauletan ere.

Lankidetzaren Atalaren iritziz, **balorazio irizpideek** behar bezala erantzuten diete Planeko printzipioei eta helburuei, eta balorazioa barnean egitearen garrantzia nabarmentzen dute, GGKEak ondo ezagutzen dituztelako eta hobeto lagun diezaiekutelako. GGKEek ere positiboki baloratzen dute irizpideak horren zehaztuta egotea, nahiz eta ez dagoen erabateko adostasunik oinarrien eta inprimakien sinplifikazioa baloratzean; batzuentzat ahalegin handia egin da ildo horretan, baina beste batzuentzat ez da nahikoa izan. Horren harira, Koordinakundeak adierazi du bai oinarriak bai inprimakiak erreferentziatzat har daitezkeela, koherentzia handia dutelako, baina oraindik ere konplexuak direla erakunde txikientzat.

Lankidetzaren zuzenari eta, zehatzago, **hitzarmenei**, dagokienez, Lankidetzaren Atalak positiboki baloratu ditu, eta uste du horien aurrekontu zuzkidura egokia dela, GGKEen sektoreak ildo horretan zenbait kritika egin baditu ere. Beste ekimen batzuekin gertatu den moduan, tresna ebaluatzekeko interesa agertu dute, hobetu ahal izateko, batez ere denbora gehiagoz laguntza jaso dutenei dagokienez. GGKEek eta Koordinakundeak ere positiboki baloratzen dituzte sustatu diren ekimen motak, baina gehiegizkotzat jotzen dute horietara bideratu den portzentajea; horrez gain, kezka agertu dute, tresna hori aldaketa politikoei oso lotuta dagoelako eta babestutako ekimenek azken urteotan izan duten nortasunetik urruntzea ekar dezakeelako.

Euskal Fondoak, kontuan izanda diru laguntzen ildoak ez duela horren gertutik ezagutzen, balorazio orokorragoa egin du, eta adierazi du komenigarria litzatekeela **tresnak** berrikustea, abiapuntutzat hartuta argi eduki behar dugula zer, norekin eta non egin nahi dugun, ondoren tresna eraikitzeke edo egokitzeke. Horrez gain, uste dute hitzarmenei buruzko eztabaida labaina dela eta, edonola ere, jarrera argi eta irekiak hartuta landu behar dela.

Baliabideei dagokienez, datuen analisiak adierazten du, oro har, Planaren proposatutako aurrekontu helburuen betetze maila altua izan dela. Lankidetzari esleitutako kopuruak 2012ko zenbatekoa gainditu du 2015ean, nahiz eta 2013an beherakada bat izan zuen. Eragile guztiek oso positiboki baloratzen dute Planaren lehen urteetan lankidetzaren bideratutako aurrekontuari eusteko eginiko ahalegina, krisitik eta murrizketa orokorretatik harago. Balorazio kritikoa egin zaie, ordea, onartutako azken aurrekontuei; izan ere, kezka ikusi dute gainerako partidak areagotu egin direla eta lankidetzaren bideratutako guztizko zenbatekoari bere horretan eutsi zaiola. Horrek esan nahi du “zeharkako murrizketa” bat egon dela. Diru laguntzen deialdi publikoak ez du murrizketa nabarmenik jasan, baina beherakada txiki bat egon da 2015ean lankidetzaren lerroan. Horrek kezkatu egiten ditu bai Lankidetzaren Atala bai GGKEak eta

Koordinakundea; azken horiek, krisi garaian aurrekontuari bere horretan eutsi izana positiboki baloratzen badute ere, kritikoagoak dira 2015eko joera honekin. Horrez gain, oraindik lortu ez den % 0,7aren aldarrikapena ere egin dute.

Gainerako konpromisoei beren horretan eutsi zaie; esaterako, aurrekontuaren % 10 Euskal Fondoari esleitzekoari. Horren balorazio oso ona egin du erakundeak, baita hezkuntza eta lankidetzaren lerroetarako 30/70 portzentajeari eustearena ere. Era berean, Ataleko taldeak kezka berezia agertu du barneko gastuen kapituluko murrizketari dagokionez; izan ere, berez ere oso estua da eta zenbait jardura egiteko aukera mugatzen ari da, besteak beste, segimendu bidaiak edo Planaren kudeaketaren eta laguntzaren kalitatea hobetzea ekarriko luketen beste ekintza batzuk.

Balorazioak eta gomendioak

Atal honetan Plana ebaluatzen duen taldearen zenbait balorazio eta gomendio jaso ditugu. Hasteko, esan behar da **oro har uste** dela Plan honek argiago ezarri dituela Udalaren lankidetzaren politikaren plangintza, kudeaketa, jarraipena eta gardentasuna hobetzeko mekanismoak, eta Donostiako elkartasunaren nortasuna eta eredia finkatzea ahalbidetu duela. Hala, egin beharreko lehen gogoeta orokorra izango litzateke beharrezkoa dela aurreko bi planei jarraipena emango dien eta horietan proposatutakoa hobetuko duen hirugarren plan bat egitea. Oinarri ona dugu, plan egoki bat eta sektorearen zati handi batek ulertzen duena, eta Kontseilua bezalako espazioak, tresna berri horren formulazioa egiaztatzeko prozesu parte-hartzaile bat barne har dezaketenak. Beraz, balioa eman behar zaio amaitutako Planari, zehazteke geratu diren elementuak ere kontuan hartuz. Horrez gain, hirugarren plan bat egitearen aldeko apustua egin behar da, Donostiak erreferente izaten jarrai dezan udal lankidetzako politiken garapenean.

Esparru teorikoaren harira, esan behar dugu zenbait elementu interesgarri barne hartzen dituela; esaterako, nazioarteko testuinguruaren analisia, horren baitan nazioarteko elkartasunari esleitutako zeregina, agenda alternatiboaren identifikazioa (esaterako, ongizatea eta ekonomia feminista) eta Donostiako lankidetzari balio erantsia emango dioten eragileak indartzeko interesa (esaterako, gizarte mugimenduak eta erakundearen plataformak). Elementu horiek guztiak, politiken koherentziaren aldeko apustuarekin batera, bereziki interesgarriak dira, berriak direlako eta apustu politiko argia egiten dutelako. Uste dugu, alde batetik, esparru hau sakonago definitu behar dela eta, bestetik, ikuspegi hau erabilgarri ditugun jarduteko modu eta tresna desberdinen analisi batekin lotzeko aurrerapausoak eman.

Plana eraginkor bihurtzeko, helburuen matrize bat ezarri da; alabaina, matrize horrek zenbait zailtasun ekarri ditu helburu bat betetzeko egokienak diren **ekintzak** edo **adierazleak** zehazteko, kasu batzuetan handinahiegiak izan baitira. Etorkizuneko Planari begira, gomendatzen dugu, batetik, **Planeko helburuak berrantolatzea**, baita zehaztutako emaitzak eta adierazleak ere; izan ere, egungo Planean batzuk errepikakorrak direla eta/edo ez daudela argi definituta iruditzen zaigu. Berrantolaketa horren irizpide gisa erabil daitezke jarduketa esparruak edo eragile estrategikoak, edo matrizeari batasun eta koherentzia handiagoa emango dioten beste batzuk. Bestalde, **eraginkortasunaren** bidean aurrera egiten jarraitzea gomendatzen da, bertan ikusitako mugak gainditzen saiatuz. Esaterako, sailaren ardurapean dauden ekintzak zein diren eta partekatuak zein diren ondo zehazten duen plangintza bat egin behar da, eta hori adierazle esparrura ere eraman. Horrez gain, adierazle batzuk sendotzea gomendatzen da; horretarako, dagozkion egiaztatze iturriak erabil daitezke, esaterako. Azken finean, gauzatu beharreko ekintza ahalik eta gehien zehaztea gomendatzen da, baita horren betetze maila neurtzeko modua ere; horretarako, beharrezkoa bada, adierazle bat baino gehiago sartuko dira, kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak, baita

horien egiaztatze iturria ere. Hartara, etengabeko segimendua erraztu egingo da, eta komenigarria izango da urteko segimendu txostenen eredu bat zehaztea, betetze maila kualitatibo eta kuantitatibo hori ordenatuta eta sistematizatuta jaso dezan.

Ikuspegi teorikoari dagokionez argitzeko beharra duen beste alderdi bat da **interes bereziko arloen eta zehar lerroen** arteko bereizketa. Badirudi argiago daudela esparru teorikoan, baina horiek ezartzean ez dira horren zehatzak, eta baliteke gabeziak eta bikoiztasunak sortzea. Gainera, diru laguntzen ildoaren baremazio taulak ez du laguntzen alderdi hau argitzen. Hori horrela, gomendatzen dugu bereizketa hori berrikustea, horiek gehiago zehaztea tresnetan, lehentasun bakoitzak baremazioan duen pisu erlatiboa aztertzea eta tresna bakoitzaren zehaztasun edo garapen maila gehiago lantzea.

Indarkeriarik Eza Aktiboa interes bereziko arloaren kasu zehatzean, agerian geratu da legitimoa dela, baina erabat ulertzeko eta aplikatzeko zaila da. Arlo gisa duen sarrera berrikustea gomendatzen da, baita beste ikuspegi batzuetatik lantzeko aukera aztertzea ere (zehar lerro edo lan metodologia gisa). Horrez gain, beharrezkotzat jotzen da lehentasun berrienei eduki gehiago ematea. Lehentasun horiek dira, esaterako, elikadura burujabetza edo kontsumo kontziente eta arduratsua.

Lerro horiek **tresna** desberdinetan zehazteari dagokionez, oro har gomendatzen dugu diru laguntzen ildoaren oinarriak eta inprimakiak errazten jarraitzea. GGKEen sektoreak zenbait proposamen egin ditu ildo horretan, beraz, interesgarria izan daiteke hausnarketa partekatua egitea.

Balorazio taulari dagokionez, uste dugu horren zehaztasun maila nabarmendu behar dela, azpiirizpideen araberako puntuazioa oso zehaztuta baitator. Alabaina, horrek esan nahi du gure ustez konplexuegiak diren taulak barne hartzea, eta horrek koherentzia eta eragiteko ahalmena galtzeko arriskua dakar. Beraz, interesagarria iruditzen zaigu horiek berrikustea, ikuspegi teorikoaren koherentzia areagotzeko eta prozesua errazteko, bi elementu horiek funtsezkoak baitira Plan honetarako.

Lankidetzazuzenari dagokionez, bai hitzarmenentzat bai Udalak zuzenean antolatzen dituen garapenerako hezkuntzarako ekintzentzat, biak ebaluatzea gomendatzen da, eta bi lerro sakonago lantzen jarraitzea: batetik, Planaren erreferentzia esparrua, bere apustu eta lehentasun guztiekin, tresna guztietan agertzeko beharra. Eta, bestetik, ekimen horien eraginaren neurketa eta horien indartzea, jasangarritasunari dagokionez.

Horrez gain, uste dugu hitzarmenak ezin hobeak direla proposamen berriak martxan jartzeko edo Plan honek estrategikotzat hartzen dituen beste subjektu batzuekiko loturak ezartzeko (esaterako, gizarte mugimenduak edo beste sare eta plataforma batzuk). Interesgarria da bide berri horiek aztertzen jarraitzea.

Horri lotuta, agerian geratzen da **ebaluazioaren** kulturaren aurrera egiteko eta sakontzeko beharra, ahalmenak indartuz ildo horretan. Ebaluatutako Planaren ahultasun handiena erakutsi duen elementuetako bat izan da. Horren harira, gehitu dezakegu prozesuen segimendua kultura horren zati dela, ikuspegi integraletik, eta, horretarako, beharrezkoa izango dela dagozkien baliabideak esleitzea.

Politikaren koherentzia argi eta garbi definitu dute Plan honen balio gisa, eta Udalak sustatutako lankidetzaren nortasun elementu gisa. Alabaina, apustu honek zailtasun ugari ditu, aurreko ataletan ikusi dugun moduan. Ildo horretan, interesgarritzat jotzen da edukiak gehitzen jarraitzea koherentzia agenda horri, koordinazio mekanismoak ezartzea, espazio formalak ezartzea Udalaren barnean (teknikarien eta politikarien parte-hartzearekin) eta lehendik egindakoa sistematizatzea, jakinaraztea eta horri balioa ematea. Azken puntu hori oso garrantzitsua da; batetik, herritarrek eta lankidetzaren sektoreak ildo horretan eginiko aurrerapenak ezagutu eta beren gain har ditzaten, eta, bestetik, honelako ekimenetan

aurrera egiteko beharra posizionatzen jarraitzeko (zailtasunak zailtasun), hori baita Donostiako Udalaren lankidetzaren nortasun ikurra. Horretarako, beharrezkoa da asmo politiko argia erakustea, eta ekonomia nahiz giza baliabideak horretara bideratzea.

Bestalde, **Kontseiluak** jarraitzen du lankidetzaren politikan parte hartzeko espazio nagusia izaten; bai Udalak bai GGKEek adierazi dute espazio horrek mugak dituela, baina konfiantzaren eta azken zortzi urteetako lanaren inguruan eraiki dela. Espazio horren berrikuspen kritiko eta konstruktiboa egitea beharrezkoa bada ere, badirudi sektorea kezkatuta dagoela azken aldian Kontseilua ahuldu ahal izan duten zenbait logikarekin. Hala, beharrezkotzat jotzen dugu espazioa bera eta bere nortasuna indartzen jarraitzea, landu beharreko gaiak, metodologiak eta funtzionamendu dinamikak berrikusiz, eta baliabideak eta denborak bideratzea horretara.

Plan honen beste elementu nagusietako bat beste **eragile**, gizarte mugimendu, erakunde txikiago, plataforma eta halakoekiko **harremana** izan da. Uste dugu oso interesgarria dela azken lau urteotan ildo horretan egindako lana, eta gomendatzen dugu lan hori aztertzea, etorkizuneko Planera begira, eragileak eta horiekiko harreman mota zehatzago definitzeko, eta horren inguruko azterketa bat egiteko. Lehen ere lankidetzaren zuzeneko hitzarmenei buruz hitz egitean adierazi dugun moduan, formula eta tresna berriak behar dira.

Baliabideei dagokienez, bi elementu aipatu behar dira. Batetik, aurrekontu konpromiso orokorrari bere horretan eusteko beharra, eta, bestetik, aurrekontua jarduketara esparruen eta tresnen arabera banatzeari buruzko sektoreko elkarrizketa eta eztabaida baterako espazioa irekitzea. Espazio horretan landu beharko dira, besteak beste, 0,7aren aplikazioa, lankidetzaren zuzenari bideratutako zenbatekoa eta/edo funtsen banaketa (lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzarako ekimenen artean). Bestalde, talde teknikoaren gaitasunak sendotzen jarraitu behar dugu eta baliabideak eta denbora eman behar dizkiogu prestatzen jarraitzeko eta babestutako prozesuei gertuagotik laguntzeko, bai Udalak berak sustatutakoei bai diru laguntzen ildo bidezkoiei.

Amaitzeko, gomendatzen dugu, oro har, Plan honek zehaztutako bideari jarraitzea, adostasun maila altua lortu baitu eta, are gehiago, hainbat eragilerentzat erreferentziazko bihurtu baita. Alabaina, **hurrengo Plana** egiten jarraitu behar da, eragile guztien parte-hartzearekin; horrek, Donostiako Udalaren lankidetzaren politika herritarrengana gerturatzen jarraitzea ahalbidetuko du. Epe luzerako politika planifikatu bat edukitzeak ekartzen du kalitate handiagoko jarduketak eta denboran zehar jasangarriak izango direnak gauzatu ahal izatea.